

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ALKATETZAREN ETA ERAKUNDE HARREMANEN SAILA

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko otsailaren 28an hartutako erabakiaren laburpena: 2020an bizikidetzaren, aniztasuna, giza eskubideak eta oroimen historikoa sustatzeko ekintza eta proiektuak bideratzeko diru-laguntzak emateko deialdia

BDNS (Identif.): 499859

Diru-laguntzak emateari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8 a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da; horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen datu-basean (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) kontsulta daiteke:

Lehen. Onuradunak

Pertsona juridikoak, fundazioak eta elkarteak izango dira diru-laguntzen onuradun, baldin eta helbide soziala Vitoria-Gasteizen badaude eta eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen legez eratuta eta inskribatuta badaude, Eusko Jaurlaritzaren Erakundearen Erregistroan, edo dagokion Erregistro Publikoan. Vitoria-Gasteizko udalerria izan beharko dute jarduera-esparru eskabidea egiten duten elkarteak.

Bigarrena. Helburua

Vitoria-Gasteizko udalerrian bizikidetzaren sustatzea.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Vitoria-Gasteizko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko otsailaren 28an egindako bilkuran onartu ditu, eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdiari 95.000,00 euroko aurrekontua egokitu zaio.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

20 egun balioudun laburpen hau ALHAOn argitaratzen denetik. Azken eguna larunbata edo jaieguna bada, hurrengo egun balioudunera aldatuko da.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko otsailaren 28an

Alkatetzaren eta Udal Harremanen Saileko zuzendaria
ESTIBALIZ PEREDA SAGREDO